

## Azurmendi, Arantzazuko pentsalaria

*Pruden Gartzia*

Euskaltzain urgazlea

Artikulu honetan Joxe Azurmendiren profil intelektual orokor bat eskaini nahi nuke, edozeinek ulertzeko modukoa, eta helburu hori erdiesteko oinarri-oinarrizko tesi bat paratuko dut: Joxe Azurmendi ez da pentsalari bakarti eta jenial bat; aitzitik, belaunaldi zabal baten barruan sartu eta kontsideratu beharreko pentsalari bat da. Izena ere jarriko nioke, arazo barik: Arantzazuko belaunaldia. Baina erreparatu ezazue: *belaunaldi zabal* eta ez *talde*. Izan ere, tentazioa izan daiteke Azurmendi talde txiki eta trinko baten barruan sartzea, hots, Jakin Taldean, eta kitto. Bide faltsua litzateke, edo, bestela esanda, horrek gauza batzuk argi ditzake dudarik gabe, baina ez da nahikoa haren lanaren ikuspegi global bat izateko. Nire ustez, haren traiektoria bitala eta intelektuala askoz ere hobeto ulertzen da bere kasua belaunaldi zabal baten barruko kasu argigarritzat hartuta. Ondorioz, Azurmendiz baino bere belaunaldiari buruz mintzatuko naiz, ikuspegi globala hobetsiz aspektu pertsonalen gainetik.

Bi ezaugarri nagusi hartu behar dira kontuan Euskal Herriaren XX. mendeko historia intelektuala ulertu nahi bada: batetik, Eliza katolikoaren pisu izugarria, Europan leku gutxitan ikusten den bezalakoa; eta, bestetik, unibertsitate baten gabezia, hori ere garai honetarako Europako leku gutxitan gertatzen dena, inon gertatzen bada. Beraz, XX. mendean kontraste handi bat dago Euskal Herriaren eta Europaren artean, eta, hain zuzen ere, hortik sortzen da Arantzazuko belaunaldiaren pentsamenduaren originaltasuna. Ondoko lerroetan hori zertan den ulertzen saiatuko gara.

### Azurmendiren aurreko egoera

Pentsa dezagun orain XX. mendeko lehen hereneko Euskal Herrian, hots, Gerra Zibilaren aurrekoan. Bada gertakari bat ezin dena inola ere ignoratu: garai horretan Euskal Herriko gizartearen sektore oso zabalak guztiz katolikoak eta Elizaren menpekoak dira. Faktu hori ilustratzeko niretzat paradigmaticoak diren bi pasarte adierazgarri ekarriko ditut hona; 1934ko Zaldibiaren giro erlijiosoa deskribatzen digute eta egilea Jose Maria Sukia izeneko gazte bat da, orduan Gasteizko seminarioko teologiako bigarren kurtsoko ikaslea:

Gracias a Dios, la única religión profesada por los habitantes de Zaldibia es la Católica. Todos cumplen con los preceptos de la misma, menos tres individuos que dejan de cumplir

habitualmente con la Iglesia. Dos de esos individuos son extraños al pueblo, aunque hace años residen en Zaldibia. Además de esos tres habituales, hay también alguno que otro que, a veces, deja de cumplir los preceptos de la Iglesia.

Alegia, Zaldibiak 1.700 biztanle ditu, baina herriko apaizak zehatz-mehatz kontrolatzen ditu den-denak. Zehatz-mehatz *hiru* dira elizara joaten ez direnak, hiru besterik ez, eta zehatz-mehatz dakigu nortzuk diren. Eta hiru horietatik, oi kasualitatea, *bi* kanpotarrak dira. Ez iezadazue esan deskribapen soziologiko hori zorrotza ez denik. Baina testuak aurrera segitzen du, honela:

Desde que nace el niño hasta que muere véese saturado de un ambiente netamente católico. Su educación es marcadamente religiosa en su familia y en la catequesis; no lo es tanto en la escuela o escuelas que frecuenta. [...]

La oración es conocida y frecuente. No permitirá la madre que ninguno se ponga a comer antes de rezar las preces acostumbradas, aun cuando no acudan todos a la mesa a la misma hora. [...]

Entre las asociaciones que contribuyen al sostenimiento del nivel religioso están: ‘Cofradía del Santo Rosario’, fundada por el mismo V. P. Kardaberaz, a la que pertenece el pueblo entero; ‘Marías del Sagrario’, que tiene de 115 a 120 asociadas; ‘Visita domiciliaria del Niño Jesús’; ‘Las Hijas de María’ y ‘Tercera Orden de San Francisco’, en las que están alistados todos, y no cabe duda que son las asociaciones que más influyen en las personas de 14 años para arriba. A todas esas asociaciones hay que añadir la ‘Congregación del Niño Jesús de Praga’, de reciente fundación y que cuenta con más de 200 socios entre niños y niñas de siete a catorce años.

Hay que afirmar que es poderosa la influencia que ejercen estas asociaciones y cofradías en los habitantes de Zaldibia en cuestión de la frecuencia de los Santos Sacramentos. Es digno de verse el espectáculo que ofrece la Iglesia en los días señalados dentro del mes a cada asociación para sus funciones. Sin exageración, se puede afirmar que no pasará un mes sin que se acerquen a la Sagrada Mesa dos terceras partes del pueblo.<sup>1</sup>

Tira, segi daiteke, baina uste dut horrela nahikoa dela. Eta bai, Zaldibia Euskal Herria da, baina Euskal Herria ez da Zaldibia, hori nabari-nabaria da eta denok dakiguna. Gero ere itzuliko gara puntu honetara. Orain segi dezagun aurrera: badakigu nolakoa zen gizartea; galde dezagun orain: nolakoa zen orduan Elizak predikatzen zuen doktrina?

Zeren, denok dakigun bezala, Eliza katolikoa inoiz ez da bloke monolitiko bat izan, beti egon dira talde eta joera desberdinak, elkarren kontra jotzen zuten teologoak eta doktrinak. Laburbilduz, azken berrehun urtean gutxienez, Eliza katolikoaren barruan bi joera orokor bereiz daitezke errazki: progresistak eta erreakzionarioak.

Eta orain esango dudana azpimarratzea oso garrantzitsua da Arantzazuko belaunaldia ondo ulertu nahi bada: Eliza katolikoa, XX. mendearen hasieran, bete-betean erregresio-fase batean sartuta dago eta gero eta gehiago kultura modernoaren aurka lerratzen da. Euskal Herriari dagokionez, erreakzionarismo hori sakondu eta indartu egiten da, oraindik gehiago, Gerra Zibilaren ondorioz.

Faktu hori ondo ilustratzen da *modernismoaren afera* deitu izan denarekin. Alegia, 1907an Pio X.a aita santuak *Pascendi Domini gregis* izeneko entziklika promulgatzen du, eta pentsamendu progresista izan daitekeen oro (berak *modernismo* deitzen du) gogorki kondenatzen du. Ez da orain unea *Pascendi* entziklika iruzkintzeko, baina beharrezkoa iruditu zait pasarte esanguratsuenetako bat hona ekartzea:

[Los modernistas] Andan clamando que el régimen de la Iglesia se ha de reformar en todos sus aspectos, pero principalmente en el disciplinar y dogmático, y, por lo tanto, que se ha de armonizar interior y exteriormente con lo que llaman conciencia moderna, que íntegramente tiende a la democracia; [...]

Las Congregaciones romanas deben asimismo reformarse, y principalmente las llamadas del Santo Oficio y del Índice. [...]

¿Qué queda, pues, intacto en la Iglesia que no deba ser reformado por ellos y conforme a sus opiniones?<sup>2</sup>

Beraz, garai horretan Eliza katolikoa gogorki saiatzen da demokraziaren aldeko joerak zentsuratzen. Hala ere, denok dakigunez, erabateko kontrola ezinezkoa da eta beti dago agintarien ildo nagusitik aldentzen denik. Adibidez, gatozen Euskal Herrira eta pentsa dezagun euskal intelektual nagusi horietako batekin, alegia, Jose Ariztimuño *Aitzol*-ekin. Garbi dago Aitzol Eliza katoliko eta erromatarraren menpeko fidel eta erabatekoa zela, baina, aldi berean, Europako hainbat apaiz, teologo edo kristau bezala, hierarkiak inposatzen zion mugetatik haraindi joaten saiatu zela eta Elizan eta euskal gizartean lan egin zuela norabide demokratiko batean. Baina Gerra Zibila hasi zen eta Aitzolek, beste hainbat euskal apaizek bezala, kontzientzia-krisi handi bat pairatu zuen eta bere burua definitu beharrean aurkitu zen. Frankistek atxilotu zutenean Hegoaldera zetorren barkuz, itxura guztien arabera negoziazio bat bultzatzera abertzaleen eta frankisten artean. Frankisten erantzuna izan zen zubi guztiak zapartatzea: atxilotu, torturatu eta hil.

Nago episodio hori euskal kulturarentzat bereziki adierazgarria dela, guztiz enblematikoa. Zergatik? 1936tik aurrerako egoera berria ederki ilustratzen duelako bere dimentsio bikoitzean: batetik, Erregimen berria gogor saiatuko da Elizaren eta euskal kulturaren arteko harreman oro eteten eta katolizismo espainolista eta inperial bat bultzatzen; bestetik, Euskal Herria integrismo katoliko antimoderno beltzenezan murgilduko da, indar progresista oro guztiz zanpaturik.

Baina garrantzitsua da azpimarratzea errepresio orokor horren barruan ez zirela sartzen soilik Aitzol bezalako katoliko abertzaleak, baizik eta Unamuno bezalako patriota espainol eredugarri bat ere baztertzeko modukoa zela Erregimenarentzat. Adibidez, irakur dezagun Gasteizko seminarioko irakasle batek, Jose Maria Zirardak, seminaristei emandako hitzaldi solemne batean Unamunori buruz dioena 1947an:

Al iniciar este trabajo sólo pretendíamos, cargados de sentido objetivo, realizar una sistematización de las ideas religiosas de Unamuno, [...]. Y nos hemos encontrado con que en el fondo de todas sus obras están latiendo aquellas mismas que Pío X condenara como la suma de todas las herejías. (11. or.)

Agnosticismo, inmanencia vital, simbolismo dogmático, evolucionismo, relativismo pragmatista. Todas son ideas constitutivas de la gran herejía de nuestros días, del compendio de todas ellas, como llamaba Pío X al modernismo. Todas ellas pululan en los libros de Miguel Unamuno, íntimamente trabadas entre sí. (27. or.)<sup>3</sup>

Gogora, 1947an Euskal Herrian ez zegoen unibertsitaterik, baina gauzarik antzekoena Gasteizko seminarioa zen, non aurreko hamarkadan irakasle izanek baitziren Manuel Lekuona eta Jose Migel Barandiaran. Bada, 1947an Lekuona eta

Barandiaran jada ez dira han irakasle, eta bai, ordea, Jose Maria Zirarda. Euskal Herri beltz hori zen Azurmendiren umetako eta gaztetako Euskal Herria. Hori ote da Arantzazuko seminariora sartzen denean aurkituko duen giroa?

## Arantzazu antifaxista bere gorenean

Zuk zer dezu, Arantzazu!  
ames-kabi, erti-leku?...  
Euskal Herria oso-osorik  
kantari dijoakizu.<sup>4</sup>

Artikulu honen puntu erabakigarrietako batera iritsi gara; irakurri dizuet Salvatore Mitxelenaren 1949ko aipu ezaguna, eta horren haritik nire tesia paratuko dut: zotz eta motz esanda, Euskal Herrian frankismoa ulertzea, kulturari dagokionez bederen, Arantzazu ulertzea da. Zergatik? Gerra ondoko Euskal Herri beltz horretan Arantzazu bihurtzen delako, *de facto*, euskaltzale guztien eta kulturaren eragile progresista guztien topaleku, esperantzari leiho bat zabaltzen dion euskararen eta kulturaren santutegia.

Areago, topaleku izateaz gain, sinbolo ere bihurtzen delako, Euskal Herriaren beraren sinbolo. Eta sinbolo horren baitan bat egiten dute borroka antifrankistak, euskal kulturak eta progresismo orok, erlijioan, pentsamenduan, artean, literaturan, politikan, gizartean... Hitz batez esateko, 1950etako hasieran, ez dakit oso ondo zein sakoneko indarren eraginez, Arantzazu *antifaxista* bihurtzen da.

Une horietan ailegatzen da Joxe Azurmendi Arantzazura, artean mutiko bat besterik ez dela, baina leku horrek, faro horrek, sinbolo horrek, osorik beteko du eta bere traiektoria intelektualaren ezaugarri nagusia bihurtuko da: Joxe Azurmendi, beste ezer baino lehenago eta beste ezer baino gehiago, Arantzazuko gizona da; eta bere belaunaldia, beste ezer baino lehenago eta beste ezer baino gehiago, Arantzazuko belaunaldia da.

Beraz, *zuk zer dezu, Arantzazu?* hori da guztiok sakon hausnartu behar dugun galdera, ez bereziki Joxe Azurmendiz, baina euskal kulturaz bere osotasunean ezer ulertu nahi badugu.

Galde dezagun, beraz: nola sortu zen *Arantzazu antifaxista*? Bada, ez kontraesanik gabe, esan dezagun, ez kontraesanik gabe. Kontraesan nagusia Eliza barrukoa da, eta hori oso-osoa gutxi ikertu da, nik dakidanagatik, hori izan arren ondoren datorren guztiaren giltza. Ikusi ditugu Gerra Zibilaren ondoren Eliza katolikoaren sektorerik erreakzionarioenak jaun eta jabe eginda Euskal Herrian. Eta bazirudien hori besterik ez zegoela, beste guztia hila, erbesteratua, kartzelatua, baztertua, zanpatua... betirako ahaztua. Baina ez. Arantzazun, adibidez, 1950etako hasieran basilika berri bat egitea pentsatzen denean, frantziskotarrek apustu argia egiten dute arte modernoaren alde: joan Arantzazura eta begiratu basilikari, eraikin abangoardista horren diseinua frankismo beltzenean erabaki zen eta frantziskotarrek erabaki zuten, alegia, gerra garaian Francorekin lerrokatzeko arazo berezirik izan ez zuten berberak.

Nire ustez, fenomeno hori, itxurazko kontraesan hori, ezin da ulertu bakar-bakarrik euskal esparruari, areago, bakar-bakarrik Espainiako esparruari begiratuta. Aitzitik, Eliza katolikoaren fenomeno global bat da: hurrengo hamarkadan Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa izango zena hamarkada bat lehenago ari zen egosten, subajuan oraindik, frantziskotarren eta jesuiten ordenatan, adibidez. Zeren frantziskotarren ordenaren barruko gorabeherak kontuan hartu gabe ezinezkoa da *Arantzazu antifaxista* ulertzea. Baina gera gaitezen orain euskal esparruan. Eta euskal esparruari dagokionez, pertsona gakoa, dudarik gabe, Salvatore Mitxelena da: bera da Arantzazuren sinbolo berriaren sortzailea eta euskal kulturaren barruko aldaketa nagusia abiatzen duena.

Har dezagun bere lan bereziki garrantzitsu bat, gutxitan aipatua ikusten den *Unamuno ta Abendats* (1955) saiakera. Horretan Salvatorek ikaragarritzko ahalegina egiten du euskal kultura bere osotasunean birpentsatzeko eta modernitatera egokitzeko; eta, hori egitean, nire ustez, *Arantzazu antifaxistaren* oinarriak jartzen ditu eta euskal kulturaren salbamenduari bultzada erabakigarria ematen dio. Aipu luze bat egingo dugu, saiakera horretatik hartua:

Ea zergatik auta dudan Unamuno eta ez beste edozein? Galdetu dit bilbotarrari bere euskaragorrotoa (?) barkatu ezin dion ‘euzkel-euzkel-tzale’ integritate uts oietako (oietako!) batek: Unamuno gure etsai-gogorrena omen dugula-ta.

Ba, orretxeagatik, gizona; orretxeagatik ain zuzen, integriste jauna. Unamuno, euskeraren etsai gogorrena dugularik ere, Euskal-Arimaren abokatu gogor ere badalako, zenbait ‘euzkaltzalek’ ori ezin irentsi arren.

[...]

Euskaltasun Osoa, ez zuk eta ez nik, baizik guziok osatzen duguna delako, guziok balinbaite, norgere egi eta on apurñoz.

Berebat Euskalerrigatik ere. Euskalerria abertzaleontxo ori bakarrik ez talako, gutxiago euskaltzaleontxo bakarrik, ezta eliz-gizonen ori bakarrik. Euskalerrri Egiatzkoa, egunotako ezur eta mamizkoa, ez da zure edo nire utopiak nai lukena baizik ezurmamizko jendeek, diren bezela dirala, osotzen dutena, guzcion artean kopurutzen duguna.

Ona berriro. Gaurko Euskalerrri Osoa eztugu zuk eta nik soilik ezurmamitzen, ez, integriste jauna; baizik abertzaleek eta karlistek, liberalek naiz komunistek, Españizale naiz Prantzizaleek, katolikuek naiz bestelakoek, ondraduek naiz lapur likiskume eta beste barrabasek, baita oetxek ere zoritxarrez, baita gure artean ain gutxi ez tiren pellokirtenek ere, euskara-zaleek eta erderaz jarduleek, zuk bezela pentsatzen dutenek eta eztugunok, guziok; ta beraz, guzcion artean, baita Unamunok ere noski, Unamuno gizajoak ere, bere alde. (XVII-XVIII. or.)

Orain, mesedez, pentsatu apur bat Jose Maria Zirardaren testuarekin, arestian irakurri duguna; Zirardaren doktrina zen Gasteizko seminarioan erakusten zena eta, ziur aski, baita Arantzazuko seminarioan ere; baina Arantzazun, Salvatore Mitxelena bezalako fraide batek bestelako iritziak zituen, eta ahal zuen neurrian ezagutarazten zituen, eta, dudarik gabe, giro bat sortzen zuen, giro klandestino, ziur asko, edo erdi klandestino, baina frantziskotarren ordenaren barruan, eta Eliza katolikoaren baitan ere, poliki-poliki zabaltzen eta indartzen ari zena, Vatikanoko II. Kontzilioan eztanda egin arte. Pentsamendu berri horren ardatza: integrismoaren kontra, pluralismoa eta askatasuna, gizartearen sektore guztiei zabaltzeko nahia, elkarrizketan sartzeko asmoa, hots, Eliza mundu modernoan txertatzekoa. Eta euskal kulturari dagokionez, euskal gizartearen pluralismoaren aldarrikapen erradikal-erradikala, nire uste apalean ordura

arte inork egin ez bezalakoa. Benetako biraketa kopernikar bat edo, gaur egun gure artean sarri esaten den bezala, paradigma aldaketa osoa. Nire uste apalean, testu horrek ilustratzen du beste ezerk baino hobeto zerk egin zuen posible *Arantzazu antifaxistaren* sorrera.

Baina ezin dut Salvatore Mitxelenari buruzko aipamenak utzi beste zerbait gaineratu gabe. Esana dut prozesu hori ez dela lineala; ez zen izan, inola ere, martxa triunfal bat, alegia, ez zen gauzatu kontraesanik gabe. Salvatore baitan kontraesan horiek benetako tragedia bilakatu ziren, bere burua zurrumbilo baten preso egon baitzen etengabe, indar kontrajarriek hona eta hara tiraka. Zeren badu osagai ikaragarri moderno eta erradikal bat, oraintxe aipatu duguna, baina badu beste aurpegi bat ere, atzeraka begiratzen duena, eta hori da Eliza katoliko tradizionalarekin inola ere ezin apurtu izana. Aipu bat egingo dugu, laburra:

Katolikuok ez gaitzke tinka Unamunoren sineste-motibu baezpadakotan. Guk Kristori diogun fedea ez da, Unamuno'rena legez, gerebaitak eskatzen digulako bakarrik; ez, barne-muiñak nai ta bear digulako bakarrik; baizik Jainko-Gizonak eta Eliza Amak ala erabakitzen eta agintzen digutelako sinisten dugu batezere; ta berez egia, Egi Aundia, Egi Osoa, oien esku ta ao dagolako, norgere adimentxoak ulertu edo ez. (XII. or.)

Puntu hori ondo ulertzea oso garrantzitsua da Joxe Azurmendi eta belaunaldi berriaren traiektoria ulertzeko; alegia, Salvatore guztiz erradikala eta modernoa izan zen euskal kulturari eta Euskal Herriari dagokionez, baina, Eliza katolikoari dagokionez, inoiz ez zen ausartu hierarkiaren aginduak zalantzan jartzera. Aldiz, Arantzazuko seminaristen belaunaldi berriak askoz ere indartsuago eta erabakigarriago joko du bide horretan aurrera, laster ikusiko dugun bezala; eta horretarako, ziur aski, izan zuten testuinguru bat Salvatorek inoiz izan ez zuena, hots, Vatikanoko II. Kontzilioa eta horrek ematen zuen nazioarteko babesia. Baina gehiegi aurreratzen ari naiz: Azurmendiri eta Arantzazuko belaunaldiari bete-betean ekin aurretik beharrezkoa da ohar labur bat egitea nik neuk *Arantzazu antifaxista* deitu dudanari buruz.

### **Oharra Arantzazuz eta antifaxismoaz**

Izan ere, zer da antifaxismoa, zehatz-mehatz esanda? Orain ez dugu astirik xehetasunetan sartzeko; beraz, harira joko dut: antifaxismoa koalizio politiko zabal-zabal bat da, bereziki arrakastatsua intelektualen artean; 1936an sortzen da, eta, hasiera batean, ezkerreko indarrak baino ez ditu biltzen: sozialistak, komunistak eta errepublikanoak; Euskal Herrian, adibidez, ANV Fronte Popularrean integratzen da, baina PNV ez. Baina, Gerra Zibila piztu bezain laster, bere oinarritzko definizioa aldatzen du, eta, orain, indar zentristak eta eskuindarrak ere bere baitan integratzen dira, zenbait katoliko ere barne; hots, antifaxismoan parte hartzeko nahikoa da demokraziaren oinarritzko balioak defenditzea eta faxistak porrokatu nahi izatea. Euskal Herriari dagokionez, orain PNV ere antifaxista gisa definitzen da, bere militante gehienak katoliko zintzoak eta eskuindar xamarrak izan arren; baina prest zeuden armak hartzeko faxisten kontra eta demokraziaren alde.

Bigarren Mundu Gerra hastean, antifaxismoaren definizioa oraindik gehiago zabaltzen da: adibidez, Alemanian, gaur egun, Claus von Stauffenberg bezalako aristokrata eta militar aleman katoliko eta txit kontserbadorea ere heroi antifaxista gisa kontsideratua da.

Baina 1936 eta 1945 bitarteko historia denok ezagutzen duzue eta, beraz, ez dut orain laburbilduko. Ohar bat bakarrik: Espainian faxismoak boterean iraun zuen 1975era arte. Ondorioz, 1945etik aurrera Espainia leku berezi bat izango da Europan, faxismoaren kontrolpeko nazio bat. Halaber, aurpegi horrek badu bere ifrentzua: Euskal Herrian antifaxismoa inon baino sendoagoa izango da eta inon baino gehiago iraungo du, Europa mailan salbuespenezkoa bihurtu arte.

Eta orain beharbada zuen buruari galdetuko diozue zer zerikusi duen horrek Joxe Azurmendirekin. Erantzuna oso erraza da: Arantzazuko santutegia izango da intelektualen antifaxismo horren gotorleku nagusia. Gertakari horrek guztiz eta erabat blaitzen du euskal kulturaren esparru guztia eta, bereziki, Joxe Azurmendiren belaunaldia. Belaunaldi hori *Arantzazu antifaxistaren* belaunaldia da.

Eta horretaz konbentzitu ez dudana, mesedez, doala bihar bertan Arantzazura eta begiratu dezala, arreta apur batez, Oteitzak zizelkatu zuen frisoa, bere apostoluekin eta bere pietatearekin, eta hausnar dezala apur bat zer den friso horretan Oteitzak irudikatu nahi izan zuena. Erantzuna oso-oso erraza da.

Eta oraingoz ez badago konbentzitututa, jaitsi dadila azpiko kaperara eta begiratu diezaiola Basterretxeak pintatu zuen Jesukristo gorriari, ukabilak estututa dituen. Eta hori guztia eginda oraindik ez badago konbentzitututa, enfin, nik esan dezakedan ezerk ez du konbentzitutuko.

## **Azurmendi gaztea**

Gatozen behingoz Azurmendirengana. 1950 inguruan Arantzazura ailegatzen denean, frankismoa, hots, faxismo espainola, indar betean dago eta itxura batera erabat hegemonikoa da maila guztietan. Baina lehen inpresio hori, erreala izan arren, oso engainagarria izan daiteke: azpitik, satorrak baino lurperago nahi baduzue, indar berri batzuk mugitzen ari dira.

Kontua, funtsean, hau da: seminarista gazteei integrismo katoliko faxistazale eta inperial batean heziak izatea tokatu zaie, baina oso azkar erabateko biraketa bat eman diote beren heziketari. Nola gertatu da hori? Nola lortu zuen antifaxismoaren eta modernismoaren birusak komentuaren paretan sendoak zeharkatzea eta seminaristak kutsatzea? Ziur aski historia biziki interesgarri bat dago hor, baina horretaz ezer gutxi dakigu.

Hala ere, badakizkigu bi gauza: batetik, seminarista horietako asko eta asko irrikan daude Europara joateko teologia ikastera, Erromara, besterik ezean, baina ahalaz Frantziara edo Belgikara eta, horietako ausartenak apika, Alemaniara; eta, bestetik, seminarista horiek erabat arbuiatzen dituzte beren ikasketa integrista eta tradizionalak eta berehala hasten dira gai berriak jorratzen, bereziki sozialismoarekin edo komunismoarekin zerikusia duten gaiak. Hitz batez, denbora labur-labur batean

seminarista horiek europarrak bihurtzen dira, beraien kide italiar, frantses, holandes edo alemanen kezka, ardurak eta bizi-estiloa hartzen dute, nor bere erara, baina norabide europar argi batean. Joxe Azurmendiren kasua, zentzu horretan, oso arrunta da, bat beste askoren artean. Xehetasun txiki bat, haatik: badira Europara ikastera joatea lortu ez zutenak; horiek liburu eta aldizkariaren bitartez, eta beren kideekiko komunikazio zuzenaren bitartez, europartuko dira.

Eta orain, berez, tokatuko litzateke Joxe Azurmendiren beraren biografia eta produkzio intelektualean sakontzea. Bistan da orain ez dugula horretarako astirik eta, gainera, gorago esan dizuedan bezala, ni aspektu orokorretan geldituko naiz batetik, eta, bestetik, Azurmendiz ari naiz batez ere belaunaldi baten kide eta erakusgarri den heinean. Beraz, liburu bakar bat aipatuko dut, laburki, eta liburu horretako aipu bakar bat irakurriko dizuet, eta espero dut aski izatea lauki orokorra trazatzeko.

Liburu hori bere lehen liburua da, *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, 1971n Baionan argitaratua, hots, Joxek 30 urte zeuzkanean. Eta aski da liburuaren izenburuari erreparatzea belaunaldi horren kezka nagusiak zeintzuk diren ikusteko:

- *Hizkuntza*: belaunaldi horren kezka iturri zentrala; hizkuntza hori euskara da, jakina, baina euskara ez da soilik bere horretan ikertzen, hots, alde gramatikalak eta literarioak, baizik eta, baita ere eta bereziki, hizkuntza hori hitz egiten duen herriarekin harremanetan.
- *Etnia*: belaunaldi hori abertzalea da, herria (etnia) bere kezken erdigunean dago; hain juxtu ere hizkuntza eta herria lotu nahi duen hausnarketa egin nahi dute, zentzu politikoan lotu ere.
- *Marxismoa*: egundoko interesa sortzen die guztiei; marxismoak, nolabait, ezkutatu eta debekatu izan zaien ezagutza intelektual guztia laburbiltzen du; irrikan daude marxismoa zer den ikertzeko.

Jakina, hiru ezaugarrietatik hirugarrena, marxismoa, da deigarriena; liburua argitaratzen duenerako, Azurmendi fraide frantziskotar bat da eta, parametro arruntetan, ez litzateke arraroa frantziskotar bat euskaraz idazten, hizkuntzaz eta abertzaletasunaz... Baina marxismoaz? Eta orain, agian, une egokia da lehen aipatu dizuedan aipua egiteko; liburuaren hasieran dago, bere lehen-lehenengo lerroak dira:

Zenbait eztabaida eta gairi buruzko *ohar-sorta bat* da liburu hau. Beraz, *hitzaurre bat* besterik ez da liburu hau bera. [...] Dударik ez uzteko esanda: nazio-arazoaren azterketaz beraz [...] jarduteko hitzaurre, batipat. Beste alde batetik, literatura sozialistan iadanik nazio-arazoaz egin izandakoa probetxu berriz [...] irakurtzeko ohar eta hitzaurre ere bai. Lenin da hemen ezpairik gabe gai hontazko maisu klasikurik argiena. [...] *Beraz, sozialistarentzat egokia litzake nazio-arazoa ongi azterkatzeko atari antzean aurrenik Lenin ongi azterkatzea (ez zaigu liburu honen orde zuzenik Lenin-en nazio-arazoari buruzko iritzien monografia bat egiteko tentaldirik falta izan!).*<sup>5</sup>

Bai, ondo ulertu duzue: liburuaren hasieran fraide frantziskotar honek, inplizituki, bere burua sozialistatzat aldarrikatzen du eta bere ikerketa literatura akademiko-politiko sozialistaren azterketa gisa aurkeztu du. Baina ez hori bakarrik: argi eta garbi dio



Leninen gaineko ikerketa monografiko bat egitea litzakeela, agian, gaiari heltzeko modurik egokiena. Lenin.

Ze ondorio atera daiteke horretatik? Nire tesia argi eta garbi azalduko dizuet: Joxe Azurmendiren belaunaldiak erabateko apurketa gauzatzen du jaso duen heziketa integrista eta espainolistarekin; alegia, euskaltzaleak eta abertzaleak deklaritzen dira, ia-ia instintiboki, eta Europarekin kontaktuan jartzea da guztien proiektu bitalaren iparra: Europa ikastera joan eta, han, teologia berria ez ezik, filosofia, soziologia, historia, politika, literatura... ikasi, guzti-guztia zerotik ikasi. Eta European Zirarda bezalako maisuek seminarioan irakatsi dietenak ez die balio. Halaber, Europarekin kontaktuan jartzen diren une beretik, askok ezkerrean jotzen dute eta nola-halako sozialismorekin lerrotatzen dira, termino oso orokorretan hartuta; areago, beraietako hainbat ez dira konformatzen sozialdemokrazia europarrarekin, eta marxismoaren eta leninismoaren ildo desberdinekin harremanetan jartzen dira.

Laburbilduz, belaunaldi berri bat sortzen da, eta belaunaldi hori taxutu duen gertakari nagusia frankismoa da, hots, faxismoaren iraupen luzea Espainian, European gertatu zenaren guztiz kontrako norabidean. Salbuespena ez gara euskaldunak, salbuespena 1945 ondoko Espainia da. Hitz batez, salbuespena Franco da.

### **Biraketaren unea: antifaxismoaren krisia eta unibertitate**

Baina mundu honetan ezer ez da betiko, eta beharbada unea heldu da galdetzeko: noiz arte iraun zuen *Arantzazu antifaxistak*? Zeren marraztu dugu bere genealogia eta hasiera, baina garapena eta amaiera falta zaizkigu. Honetaz ere oso eskematikoki jardun beharko dugu; beraz, harira joko dut besterik gabe.

Francoren heriotzak gauzak aldatzeko bidean jarri zituen. Izan ere, sentimendu antifaxista hori sentimendu bat izan zen funtsean, intelektualek eta herritarren sektore zabalek partekatzen zuten sentimendua. Alderdi politikoei, ordea, inoiz ez zuten lortu *fronte popular* berri bat edo antzeko ezer antolatzea frankismoaren kontra, ez Euskal Herrian, ezta Espainian ere. Beraz, intelektualen eta alderdien arteko bikoiztasun horrek Francoren heriotzaren ondoren ere iraun egin zuen urte batzuetan, baina garbi zegoen ez zela betirako.

1982an garbi dago gauzak asko aldatu direla eta Espainiak erreforma politikoa arrakastatsua gauzatu duela. Madrilen alderdi sozialista bat dago agintean, zeinaren estrategiaren puntu nagusia den Espainia European integratzea, hots, Azurmendiren belaunaldiko intelektualen helburu estrategikoa berbera. Gasteizen EAJ dago agintean eta, orain zuzenean axola digunagatik, unibertitate publiko bat lortu du Euskal Autonomia Erkidegorako, zeinetan posible izango den euskal kulturaren garapen osoa, baita euskararen garapen osoa ere, alegia, hori ere Azurmendiren belaunaldiaren bigarren helburu estrategikoa. Eta, denok dakigun bezala, herritarren artean bide horrek onarpen zabala zuen.

Baina, baita ere denok dakigun bezala, Ezker Abertzaleko sektore batek uko egiten dio erreforma espainola onartzeari eta borroka armatuarekin jarraitzen du. Eta, baita ere

denok dakigun bezala, aukera horrek gizartean zeukan babesza ez zen, inola ere, ahuntzaren gauerdiko eztula.

Baldintza horietan, azken hamarkadatan guztiz arrakastatsua izan den intelektuaren giro antifaxista kondenatua dago guztiz, ez dago baldintzarik iraun dezan. Haustura edozein momentutan heldu daiteke, eta ustekabeko momentu batean iritsi zen, askotan gertatzen den bezala, gertakari erabat bazterreko baten inguruan. Nire ustez, *Mitxelena-UZEI* afera izan zen lagunarte antifaxistaren haustura markatu zuen gertakaria.

Denok dakigun bezala, 1981eko amaiera aldera Koldo Mitxelenak artikulu biziki gogor bat idazten du UZEIren kontra: 'Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia'.<sup>6</sup> Ez dakit gertakari hori zenbateraino den ezaguna gaur entzule ditugun askoren artean, edonola ere orain ez dago astirik ñabarduratan sartzeko; bi hitz besterik ez: batetik, artikulua tonua guztiz gogorra zen, erabateko haserre handi bat irudikatzen zuena, eta salaketa latzak egiten zituen; bestetik, itxura batera, zioa erabat futila zen, euskararen normalizazioarekin lotutako kontu tekniko batzuk, hiztegi gintza eta terminologia. Berehala Joxe Azurmendik erantzuten dio publikoki, *Deia*-n argitaratutako artikulu baten bidez: baita ere biziki haserre agertzen da eta tonu gogorra erabiltzen du, eta bereziki galdetzen du: «Zer gertatzen zaio Mitxelenari?».<sup>7</sup>

Nire uste apalean, garbi dago Joxe Azurmendi, une horretan, ez zela oso ondo jabetzen gertatzen ari zenaz. Eta, nire uste apalean ere, beharbada beste inor ere ez zen jabetzen, ezta Koldo Mitxelena bera ere. Zeren, azaletik hartuta, kontuak enfrentamendu txit pertsonal baten itxura osoa du, baina urteek ematen duten perspektibarekin, nire uste apalean, oso garbi dago: *Mitxelena-UZEI* aferak markatzen du *Arantzazu antifaxista* deitu dudaren amaiera, alegia, amaitu da frankismoko salbuespena, aurrerantzean euskal kulturaren garapenak bide estandarrak segitu behar ditu, Europa osoan (kontinentalean, bederen) segitzen dituen; bereziki unibertsitateari dagokionez, euskararen garapena unibertsitate publikoaren barruan egin behar da, hots, tokiko gobernutik kanpo dauden UZEI bezalako egituren eginkizuna bigarren mailakoa da. Koldo Mitxelenaren iritziz, hori da Europar segitzen den bidea, eta beste guztia sobran dago. Kitto.

Nabaria da kontua orain bi hitzetan marraztu dudana baino askoz ere konplexuagoa izan zela, baina, berriz diot, orain ez dugu astirik ez *Mitxelena-UZEI* aferaz, ez euskal kulturaren normalizazioaz, jarduteko: gai konplikatu da. Beraz, oharra eginik, itzul gaitezen Azurmendirengana. Izan ere, badirudi 80ko hamarkadaren hasieran egoera pertsonal korapilatsu baten erdian dagoela: batetik, aferaren urte berean, hots, 1982an, Koldo Mitxelenak guztiaren gainetik aldeztu duen unibertsitate publiko horretan hasita dago lanean, irakasle gisa; bere doktorego-tesia ere urte pare bat geroago irakurriko du; bestetik, bere sekularizazio-prozesuari ekiten dio, sekularizazioa bera geroxeago erdietsiko duelarik.

Nire ustez, bi datu horiek *Mitxelena-UZEI* aferaren benetako giltza berresten digute: ez da, inola ere, Koldo Mitxelenaren arazo pertsonal bat frantziskotarrekin edo zenbait frantziskotarrekin. Aitzitik, arazo sozial bat da adierarik estriktuenean, hots, aro baten amaiera: batetik, Hego Euskal Herria normaltasun europar baten barruan sartzen ari da, eta testuinguru horretan ordura arte oso arruntak ziren zenbait aliantza, konplizitate eta berezitasun orain jokoan kanpo daude, oinarri faltan; bestetik, Joxe

Azurmendiren belaunaldia, Arantzazuko belaunaldia, krisi sakon batean dago: apaiz diren asko eta asko sekularizatu dira eta sekularizatzen ari dira, eta bizimodu berri bati ekin behar diote Eliza katolikoaren egituretatik kanpo. Joxe Azurmendiren biraketa pertsonala urte horietan oso nabaria da, baina, adi hemen, ez da inola ere kasu isolatu bat. Aitzitik, bere belaunaldiko kide ugari pairatzen duen krisi bera da, gutxi gorabehera.

### **Ohar orokorra Arantzazuko belaunaldiaz**

Baina hitz eta pitz ari naiz «Joxe Azurmendiren belaunaldiaz» edo «Arantzazuko belaunaldiaz», eta orain arte ez dut ahaleginik egin hura definitzeko. Nik neuk honela definituko nituzke belaunaldi horretako kideak:

- Adinez antzekoak, baina mugak argi zehaztu gabe.
- Seminariotik pasatutakoak, ordenatu zein ez.
- Guztiz gehienak Euskal Herriko herri txiki edo ertainetakoak.
- Aldi berean antifaxistak eta Vatikanoko II. Kontzilioarekin engaiatuak, antifaxismoaren amaierak Vatikanoko II. Kontzilioaren krisialdiarekin batera harrapatu zituenak.

Ondorioz, ez guztiek baina bai askok 1980ko hamarkadan izugarritzko krisi pertsonala pasatu zuten: sekularizatu eta bizimodu berri bati ekin behar izan zioten, baldintza sozial guztiz berrietan. Nire hipotesia da ez genukeela lan handirik egin beharko ezaugarri horiek betetzen dituzten ehun bat lagun aurkitzeko, batzuk oso ezagunak, beste batzuk ez horrenbeste, baina ziur naiz gure entzuleen artean denok pertsonalki ezagutzen ditugula baldintza horiek betetzen dituzten hainbat lagun.

Eskema horren arabera, jakina, Txillardegi, Aresti, Mirande, Peillen, Kintana, Lopez Adan *Beltza*, Urretabizkaia, Sarasola edo Saizarbitoria, adibide nabarmen batzuk baino ez aipatzearen, *ez dira Arantzazuko belaunaldikoak*. Arrazoia bikoitza da: batetik, ingurune sozial desberdinekoak dira: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Paris... Esana dugu lehenago Zaldibia Euskal Herria dela, baina Euskal Herria ez dela Zaldibia; alegia, Donostia ez da Zaldibia, eta hori argi ez daukanak zailtasunak izango ditu euskal kulturaren historia ulertzeko. Bigarren arrazoia: ez ziren seminariotik pasatu eta, salbuespenak salbuespen, ez zuten erakutsi kezka erlijioso berezirik.

Beraz, frankismo garaiko edozein belaunaldiz hitz egiten denean, berdin da zein, adi, nik neuk behintzat garbi bereiziko nuke Arantzazuko belaunaldia eta Txillardegi-Aresti-Miranderena. Belaunaldi biak antzeko adina zuten kideek osatzen zituzten, eta, halaber, biak dira abertzale eta euskaltzaleak, hots, biek hainbat gauza partekatzen zituzten, baina oinarritzko ezaugarri batzuk desberdinak zituzten eta hori ez da gutxietsi behar.

## Azurmendi heldua

Artikulu normal batean Azurmendi helduak hartuko luke leku nagusia. Bistan da orain ez dugula astirik horretarako eta, gainera, hori da hain zuzen ere kongresu honetako hurrengo saioetan debatituko dena. Beraz, bi galdera eginez amaituko dut nirea. Galderak egin eta erantzun orokor batzuk marraztuko ditut, baina, funtsean, airean gelditzen diren galderak dira.

Lehena hau da: posible da Arantzazuko belaunaldikide guztien arteko pentsamendu amankomun bat aurkitzea, ala bakoitzak bere bidea egin du eta askotarikotasuna da erantzuna? Nire ustez, askotarikotasuna da erantzuna: testuinguru sozial eta intelektual beretik edo oso antzekotik sortu ziren guztiak, baina gero bakoitzak bere bidea egin du, eta zenbat eta urte gehiago pasatu edo produkzio intelektual joriagoa izan, nabariagoa izango da askotarikotasuna.

Eta bigarren galdera: zein da 1980ko hamarkadatik aurrera Arantzazuko belaunaldia deitu dugunak Eliza katolikoarekin duen harremana? Honetan ere esan beharra dago puntu horretatik aurrera, nire ustez, belaunaldia sakabanatzen dela eta erantzunak pertsonalak izango direla, ez kolektiboak. Hala ere, ez letorke gaizki berriz ere testuingurura jotzea argibide bila: 1978an badago euskal kulturarentzat garrantzi berezia duen gertakari bat, inoiz aipatzen ez dena: Joan Paulo II.a aita santuaren hautatzea. Garbi dago Vatikanoko II. Kontzilioa ikertzeak gai guztiz zentrala izan beharko lukeela Arantzazuko belaunaldiaren existentzia ontzat ematen duen edonorentzat. Beraz, bigarren galdera hori, agian, honela formulatu beharko genuke: zein izan da Vatikanoko II. Kontzilioaren balantzea Euskal Herrian?

## Ondorioak

Artikulu hau amaitu nahi nuke laburpen telegrafiko bat eginez. Jo dezagun ikertzaile norvegiar batek galdetzen didala nor den Joxe Azurmendi. Zer erantzungo nioke? Labur:

- Arantzazuko belaunaldiko kide nabarmen bat da.
- Belaunaldi horren gako nagusia da Espainiaren salbuespen egoera, hots, erregimen faxista baten iraupen luzea European gertatzen zenaren guztiz kontra.
- Horrek eragin zuen euskaldunen artean antifaxismo bereziki gogor, indartsu eta iraupen luzeko bat, berezia Europako testuinguruan; horrek ematen dio bere taxu berezia Arantzazuko belaunaldiari.
- Belaunaldi hori euskaltzalea eta abertzalea izango da eta Europarekin bat egitea izango da bere proiektu guztien iparra.
- Belaunaldi hori kristau fededunek osatzen zuten, bereziki apaiz eta antzekoek, eta bat egin zuen Eliza katolikoaren sektore aurrerakoiekin, hots, Vatikanoko II. Kontzilioaren egitasmoarekin.
- 1980ko hasieran krisialdi bikoitza pairatu zuen: batetik, Vatikanoko II. Kontzilioaren egitasmoaren krisialdi orokorra Joan Paulo II.aren aitasantutza

aldian, eta, bestetik, giro antifaxistaren amaiera Espainiako erreforma politikoaren ondorioz.

Beraz, hortik aurrera belaunaldia sakabanatzen da: kide asko sekularizatzen dira eta asko dira ogibidea bilatzen dutenak unibertsitate publikoan, hezkuntza sisteman edo kulturaren munduan, orokorrean hartuta. Nork bere bidea. Joxe Azurmendiren kasuan, unibertsitate publikoan karrera akademiko distiratsua egiten du, aldi berean arrakasta handiko liburu eta artikulua ugari idatziz.

Eta, ororen buru, Arantzazu bisitatzea da belaunaldi hori ulertzeko modurik errazena eta eraginkorra, bereziki basilikako fatxadako frisoari eta kriptako pinturei arretaz begiratzea. Arantzazu ulertzen duenak, ulertu du guztia.

### **Oharrak**

1. Sukia, Jose Maria (1935): 'El ambiente religioso en Zaldibia', in *Homenaje* [Eduardo Escarzaga eta Solaun], Gasteiz, Imprenta del Montepío Diocesano: 355-374. Enfasia neurea.
2. In *Pascendi Domini gregis*, 37. atala ([http://w2.vatican.va/content/pius-x/es/encyclicals/documents/hf\\_p-x\\_enc\\_19070908\\_pascendi-dominici-gregis.html](http://w2.vatican.va/content/pius-x/es/encyclicals/documents/hf_p-x_enc_19070908_pascendi-dominici-gregis.html)).
3. In *El modernismo en el pensamiento religioso de Miguel de Unamuno, discurso inaugural pronunciado en la solemne apertura del curso 1947-1948 por el Lic. D. Jose María Cirarda Lachiondo, Profesor de Sagrada Teología*: 11, 27.
4. Mitxelena, Salvatore (1949): *Arantzazu euskal poema*, Oñati, Arantzazu: 'Agur, Jesusen ama... (itzuleran poz)' atala.
5. Azurmendi, Joxe (1971): *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Baiona, Euskal Elkargoa: 11. or. eta izardun oin-oharra. Enfasia neurea.
6. *Muga* 19, 1981, 4-19.
7. *Deia*, 1982-01-06.

## **JAKIN**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)